

ERROMAKO SINODOA APAIZAK

"Apaiza" izan da Sinodoko leen Batzarrean erabiltutako gaita. Asko izan egin dute Gotzaiak. Bear bada geixitxo. Alperrikako mintzaketak oparo oi dira Batzar Nagusiaren. Jardun oien bildumen eta jaburpena laster amaitu izango da. Gero puntu batzuetan artu bearruko erabakiak jasoko dira, eta Sinodo ko Gotzaien bozen bitartez, azken erabakiak artu. Guzia, azkenik, Aita Santuaren eskuetan geldituko da; onek baitu azken itza.

Apaiaren etorkizunari buruz, aldaketa aundirik izango ote Sinodoaren ondoren? Ofizialki gerora gauzak argituko dira. Bifartean ez daude lo Periodistaren begiak, eta naiz eta beti egiazkoak ez izan aalegintzen dira berriak jasotzen.

Periodisten artean darabilzaten zurruru-murrak, ez dirudite gutzitx poggari arrearientzat. Henri Fesquet-ek Le Monde-ren zionez, gizon ezkonduak ez dute apaiz izateko eskubiderik irifitiko. Gotzai geinak ezkoan daude. Sinodoa amaituz dijonan bezala, isten eta estutzen ari dira Gotzaien pentsaerak gai onetan. Bozatarako gertuko dituzten puntuak bitan bilduko dituzte: Apaizgintzari dagokion teoloji dotriña eta praktikazko erabakiak.

Teoloji aldetik ezkonduak apaiztu ditezkeela, errezi onartuko dute Gotzaiak, gaurko ordea, praktikan, apaiz ezkonduak ez dirala komeni, erabakia izango da; oek dirudite beintzat Erroman jasotako azken impresioak.

APAIZ EZKONDURIK EZ

Ezetz ditonenek, beren arrazoiak dakazkite. "Gizon ezkonduak apaiztu arren, apaiztarako bokazioak ez lirake geituko. Diakono ezkonduen esperientzia aurrez obekiago ezagutu bear dugu" (Henriques Carakasko Gotzaiak).

"Apaiz asko eukitzeari ez diogu begiratut bear; apaizen ontasunak "Cualidades" dira interesgarri. Amabi aukeratu zituan Kristok. Gutxiari dagokio apez izatea (Brasilgo Kard. Araujo).

"Sortaldeo apaiz ezkonduen esperientzia ez dirudi aifi on; beren familitak gora beerekin kezkatuta arkitzen dira" (Zeilango Coeray Kard.).

"Apaiz guti izateak baditu beste soluzio-bide: Laikoen kontzientzia eraberritzea... emaztekin eskuetan ere apaiz-ministerio batzuek utz ditezke" (Poma, Italiako Kard.).

"Ebanjelioaren berri emailleen zai daude erriak. Apaiz ezkonduen erantzuna ditek: Ezin joan misioetara, andrea baitu" (Yugueslabiko Kuharic Gotzaiak).

APAIZ EZKONDURAK BAI

Apaiz ezkonduak nai dituzten Gotzai batzen iritziak dijoazkizu ondoren:

"Apaizen ezkongetasuna geigi goratzen badugu, beerrafuta uzten dugu ezkontzako Sakramentua; Orobat gertatzen da Sortaldeo apaiz ezkonduekin, sinismen eta oitura onen zerbiztari gintzokak izanik, beren apaiz lana gutxietsi eta mesprezafuta uzten dugu" (Meouchi Cardantiokiako Patriarkak).

"Lekuan lekuko apaiz bear aundiari begiratuta egoki litzake gizon ezkonduak apaizteko eskubidea ematea Nazio baitokitzeko Gotzai Batzarriari (Conferencias episcopales) Eskabide oni uko egiteak ondoren litzake lekazke, Eliza bere erakundean (Instituziotan) beti ta, aldatu ezinhezko agertzen zaiu. Apaiz ezkonduekin ez da tikituko sinismena, ez eta ezkontza-zearen baiorea ere. Jaunaren Erriaren onerako izango litzake aldaketa ar" (Malasia-Singapur'eko Galvin Gotzaiak).

"Naiz eta aitortu apaiz ezkonduak bearruko azkizola EHz-ri, gure ezkonduak ere izan di-

tezke apaiz; Beren errietan apaiz ezkonduen premiari ikusten ez duten Gotzai-Batzarrak, pentsa eta ontzat ar bezate, beren errietarako apaiz ezkonduak nai izatea, beste tokitako Gotzai-Batzarrak; gutzitx egoki bai zaito pluralismoa gaur egunean Elizari" (Alfrink, Holandako Kard.).

"Gure artean kristau presentzia ager dedin, apaiz katolikoei, bearruko zaiu Luterotar Artzaiekin alkatzea; Ezkonduko Artzai oen espiritu bizitza apaiz katolikoaren inbidiarik ez du. Beren emazteak dituzte askotan laguntzarik onenak. Familia bizitza geinetan besentzetan txemlo on da. Guk, katolikoko Gotzaiak, gure apaizen bazarrieda begien aurrean dugu eta gure gizaza arago onek kezkatzen gaitu" (Gran, Oslo-ko Gotzaiak).

"Gotzaiari" dagokio Jainko Erriak bear duten aina apaiz egitea; Apaiz-eskasia, leen erantzukizuna Gotzaiarena da; Jainko Erriak ere badu eskubide bear dituen aina apaiz eukitzeko. Egiazko kristautaldia Eukaristi aldre inguruen sortzen da. Eukaristi goseriak gabe izateko eskubide du Jainko Erriak. Eskubide du Kristok bere erriaren Eukaristian alkatzea. Apaiz ezkonduet esker, Eukaristia oparago eta ugariego izango du Jainko-erriak. Orregatik ezkon gabeko apaizen bokazioak gutxiu egingo dirala? Ez orixe; bateko bestera gertatu bear du: Eukaristia egiteko zenbat eta bitfoki ugariego, orduan eta bokazio geiago, batez ere ezkon gabeko bokazio sakratuak. Ez dezagun auztu, bereziki maite zuen Juan ez Pedro, gizon ezkonduak baizik, izan zala Kristok bere Eleizari jarri zion ofiziarria (S u e n n e n s Belgikako Kard.).

-00-

Apaiaren bizitza eta etorkizuneraiko zer balio izango ote du Sinodoak? Teoloji aldetik, bear bada, aberatsago egingo dute apaizgintza...

Praktika aldetik, Zer? Erakunde-instituziotan aldaketarik izango ote? Estrukturak leenagun geldituko ote? Garrantzi aundiko e-dukura aldaketarik ez baletorki-ku Sinodotik, beldur naiz arrear-lerin etsipen eta desesperazioare-kin. Aurrelari-aurrelari diren asoko ola mintzo dira: "Gaurko erakundeak ez dute balio gaurko mundurako; porrokatu bear dira; gaur egunean e-dukura barruetan arkitzen diranek, ez dute almenik aldaketarik egiteko. Elizaren onerako, azpitik gora, geuk asi bear dugu, gure kontura, erakunde-dukura berriak sortzen".

Leenago naiko ez eta, naaste berraste aundiagorik sortuko ote Sinodoaren ondoren Jainko Erriari? Jerarkiarekin kontatu gabe, beren gisara, erakunde-dukura berriak sortzen ez ote dira asiko kristautalde batzuek? Orrela sortuak izan ziran comunidades de bases deriztzen kristau-taldeak. Gaur talde oek guziak ez dira kondanagari; kondizionamentu batzuekin, Jerarkiaren oniritzia ba dute talde oetako askok; Gure artean ere, langetietan ba dira apaiz langille; Gotzai-baimenik dutenik ez dut ueste; baiña esperientzi bezela begiratuaz, ez ditu gaitzetsi Gotzaiak. Dirudianez, ogei Gotzai baiño geiago dira apaiz ezkonduen alde. Sinodoaren ezezkoa jaso, eta gero, beren berruak orrela aginduta, Elizaren onerako, beren lurraldeetan gizon ezkondu batzuek apaiztuko balituzteke, zer gertatuko ote litzake Elizan? Erromako kondanazioa? Elizatik kampaon jaurfiki orrelako Gotzaiak? Edo, paseak pasa esperientzia egiten dan bitartean, Itxoin...? Azkenengo au noski, nere uestetan.

Baiña, gauden zai; aurretik jakin ditzagun Sinodoaren azken erabakiak eta ondoren ikusi al izango ditugu Jainko Erriaren reazioak.

Arostegitar Jokifin

Larresorori erantzuten

Apaiz berriak hauzitan

Zalantzatan dagoen apaiz ez-egunari idazten diotzu. Ez naiz zuretzat ez-eguna. Zalantzatan ere ez nago, zalantzak izanik ere. Halere, erantzun eginen ditut. Hasiera batetan, puntuzpuntu nire akordioak eta desakordioak agertuz egitea pentsatu nuen. Baina luzeegi aterako zen beldurrez, nahiego izan dit hiru-lau puntu hartu, horietan zure pentsamentu-lerro nagusiak (apaizari buruzkoak, noski) bilatzeko esperantzatan.

Abuztuaren 7an, Le Monde egunerokoan, Maurice Druon Elizaren aldakuntzarekin sartzen zen, garaiak-kano etorriaz gainera kaltegarri zela erabakiak. Salaketa indar berarekin, zu urriaren 17ko Z.A.n («Zalantzatan dagoen apaiz horri») apaizarekin sartzen zara. Apaizarekin baino gehiago apaiz «berriarekin». Eta berri izateko modu hori ez duzu inolaz ere onartzen; deus berririk ez dagoelako hor, alde batetik; eta bestetik, hori bere apezgorean saldukeria delako. Labur: zuk apaiz berriari salatzen diotzuna (eta bere-ekin gaurko teologiaren mugimendu nagusi bati), bere fedegabezia da.

Ez nago zurekin. Gizonaren soluzioa politika mailan bilatu nahi dugula diotzu. (Politika hitzarekin, oker ez banago, zera ulertuz alegia, errealitate ez haintzat ez ontzat hartzea), sozialaren, ekonomikoaren eta politikaren mailan ez bada, trazendentzia guzia baztertzat (Ez ala?). Holako apaizak, hor alpatzen duzun emakume horren antzera, nahikunde metafisikoari erantzun politiko bat ematen bide dio. Eta noski, hori egitearekin, apaizak bere eginkizuna traizionatu egingen du, bere mezu hustuz, funtsean trazendentziari uko egin ohi diolako. Eginkizuna traizionatu, bai; baina ez hori bakarrik; bere izateari ere saldukeria egitea da horri zure iritzian. Ez da egia.

Trazendentziaren izenean debeketzen diotzu zuk apaizari politika egitea. Elizak ez. Elizak «politika» apaizari deskonseilatu (edo galera) egin dionean, batasunaren izenean izan da. Batasunaren eta gizonen autonomiarri zor zaien begiramenaren izea. Apaizari buruzko iritzi oso desberdina dago hor sustralan.

Bestalde, ez dut ikusten trazendentziaren eta politikaren artean zuk ikusten duzun horren haserre elkar-ukatzailerik dagoenik. Eta egonda ere, norik uka lezake politika alorra ere maitasunaren hesparrua denik? Maitasunaren dimensio hau aurkitu berria da, gure artean. Eta nik bezain ondo dakizunez, aurkikundeak baikor, baikorregi bihurtzen du gizona, alderdi bati oro-tankera emanez. Psikologia-lege ezagun honekin ez dut zenbait gehiegikeria (?) justifikatu nahi. Federik-ezaren problemarik ez dagoenik ere ez diot, baina fedearen eskabide bezala ikusten diela gaurko Teologiak politika-lana ukatzea, astakeria litzake.

Beste momentu batean, zure iritzi osoa bildu nahirrik, ondorio honetara iristen zara: Apaizak mundu-tarraigotz-egiaz hutsago. Baina, biak krisi nagusiago baten ondorio bezala hartu beharrean, apaizen jokabidea elizen hutsagoaren kausa bezala jo duzu. Harriturik utzi nauzu, orainagan. Lehendiki aski bekatu ez bagendu bezala, bat gehiago!

Puntu honetan axaletik zabiltzale ueste dut. Guziok ikusten eta komentatzen dugun deskristatzearen (areago sakramentuak uestearen) zergatiak eta laguntzaileak askoz ere ugariegoak eta mila bider sakonagoak bait dira. Erlijioaren soziologia mintzatzen den edozein liburu aztertzea aski da horretaz jabetzeko. Azken aldi honetan irakurri dudun liburua (H. Carrier

eta E. Pin-en «Essais de sociologie religieuse») luzaz mintzo da fenomenu honetaz.

Baina zure iritzi horrek beste nunbaiten du sustaia. Zeren-eta, oso oker ez banago, Sekulargintza-ren fenomenuak gure artean izan duen eragina, negatibua da ia osoki, zuretzat. Gure sekulargintza, zure uestez, «egokikeria, errazkeria, oportunitismoa» (Elsa Scheelen, 191). Eta leku berean, horren oinarria ere ematen duzu: «Ezin frakasoaren gurtzea jasatea, munduan garaitu nahia».

Hona apatzen mundu-tartzearen arrazioa. Segur ahal zaude, hain segur? Kanpotik ikusita, hala izanen da agian, Ez dakit. Segur egon, barrutik ikusita ez dela hola. Fedea, gizon historikoak bizi behar du, ez gizon abstraktoak. Gure kasuan, gaurko gizonak. Guztiok dakigu gizon modernuaren pentsa-eta bizi-moldeak ez direla atzokoa, gutiago heregunekoarenak. Fedea bestealde, gizakumearen historia, kultura eta gizar- te koodenada eta kondizionamentuan hezurmatzen da. Hori dela-ta, Sekulargintza Teologiak (orobat, pastoralak), gaurko munduaren eta gizonaren heldutasun maila haintzat harturik, gizon moderno honi zor zalon fede hori eskaini nahi dio. Eta bide horretatik, ez goaz, zuk salatzen duzun erara fedea «ulergarriago» eta «ballagarriago» egitera, posible egitea baino. Bai, entzun nahi duen hori eskaini behar zaito gizonari, baita baita ere ENTZUN LEZAKEAN ERARA.

Beste puntu bat. Apaizari buruzko zure iritzi, gaurko Teologiaren iritziatik baino Graham Green-en liburuetatik hurbilago ez ote dagoen pentsatzen nago. Testamentu Berriak aditzera ematen digun apaiza ez da gizaki sagaratu bat, Beraz, bere egoera ez da aparte egotea, «lien de communion» izatea baino (ikus J. Moingt: «Pastorat et celibat», in Etudes, t. 335). Horrela uler daiteke, fedegabezia aipatuta baino honetara. Baina kasu! Kristianismoa gaurko problematika ugaria.

Zuk apaiza trazendentziaren aldarrikatzaile bezala nahi duzu. Ongi da. Baina kasu! Kristianismoa ez bait da unidimensiokoa. J. C. Barreau-ren hitzekin esateko («Qui est ieu? liburuan, nik ueste), hiru dimensio ditu Kristianismoak: gorakoa, aldamerakoa eta berrakoa. Hiru, ez bat. Historia-uea batetan, hau edo bestea azpimarketzea, bidezko irudintzen zait.

Nire uestez, kristau apaiza erlijio-gizon bezala hartzen duzu fede-gizon baino areago. Baina apaiza, ezer bada, Jesukristoren jarraitzaile da. Eta Jainkoa gizon egin zanetik, trazendentzia eta enkanazioa, dialektika gisa, biak aurrera eraman behar dira. Ez dute elkar ukatzen, elkar osatzen baizik. Gainera, zure Absolutoa, gure Jainkoa dela sinistu nahi nuke.

Eta amaitzea noa. Defentsiban gaude, zuretzat. Elsak zure Pierre Meunier bere izana aitortzeko ausardiarik-eza salatzen dio. Berdin zuk guri. Herabe gara, lotsaturik gaude, oitoturik. Eta hemendik, gure federik ezaren eta gutiaren ondorioa ateratzen duzu.

Larresoro, defentsiba gehiegi ikusten duzu bazterretan. Eta zure iritzioko defentsiba horren neurri bakarra zergatik da fedea? Norberaren izearak eta (eman dezagun) heldutasunik-ezak ez ahal du zerikusirik?

Agnostikotzat duzu zure burua. Beraz kanpotik ikusten gaitzuta, eta konturatzan naizenez, oso kanpotik.

Besterik gabe agurtzen zaitut. Puntu honetan irizkide ez bagara ere, adiskidetasunean jarraituko dugulakoan,

Joan Mari Torrealdy

ONDO BADABILL
Otsein DA



ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE-TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA
Urrutzikifiak:
Etxekoa 65 19 60.
Londolako 65 19 33

URRETXUA
Urrutzikifiak:
Londolaskoe. 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

ZURE ETXEA SALTZEKO...
ETXE BIZITZA EROSTZEKO...



Agencia Inmobiliaria

GABRIEL CALPARSORO

Etxeak salgai: Ondarrabiatic Eibarreraino, Andoain, Añorga, Donostia, Hernani, Lezo, Oiartzun, eta Errenderian.
Garibay Kalea, 3

DONOSTIA

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTITETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutzikifia: 41 20 65

DONOSTIA